



PRENTSA-OHARRA

“Garbi Jokatu 2012” kanpainak exijitzen du Londresko Joko Olinpikoetako jantzigintzaren sektoreak lan-eskubideak errespetatuz

Euskadiko GGKEek, sindikatuek eta kontsumitzaileen elkarteek gaur Garbi Jokatu 2012 kanpaina aurkeztu dute. SETEM Hego Haizeak koordinatzen duen kanpaina horretan, sinadurak bildu dira Adidas (Londresko Jokoen babeslea) eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoa estutzeko, Londresko Jokoetako ekipamenduak, kirol-materiala eta publizitate-materiala ekoizten dituzten pertsonen eskubideak babes ditzaten.

(Gasteiz, 2012ko martxoaren 12a) **Euskadiko Arropa Garbia Kanpainasareak**⁽¹⁾ gaur goizean aurkeztu du Gasteizen **Garbi Jokatu 2012** kanpaina, Londresko olinpiadetarako materialak (ekipamenduak, pilotak eta bestelako kirol-materialak nahiz publizitatea eta merchandisinga) ekoizten dituzten langileen eskubideak aldarrikatzeko. GGKEen, sindikatuen eta kontsumitzaileen elkarten partaidetza duen kanpaina abian jartzeko ekitaldian, sinadurak bildu dira Adidas markari (Londresko Jokoen babeslea) eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoari bidaltzeko.

Garbi Jokatu ekimena duela 8 urte sortu zen, Atenasko Jokoetarako lan egin zuten pertsonen eskubideak sustatzeko. Gero, presio- eta aldarrikapen-ekintza gehiago antolatu ziren Beijingeko 2008ko Jokoak egin zirenean. **50 herrialdeetako baino gehiagotako milaka erakundek parte hartzen** dute sareko lan horretan, eta hainbat lorpen erdietsi ditu, besteak beste, [Nikek Indonesiako 4.500 langileri milioi bat dolarreko kalte-ordaina ematea oraindu gabeko ordu estrengatik](#). Azken akordioa LOCOG erakundearekin (Ingalaterrako batzorde olinpikoa) lortu zen duela hilabete, Olinpiaden negozioko langileak aktiboki babesteko, bai Txinan, bai Erresuma Batuan.

Akordioa [Garbi Jokatu Txinako bi lantegiren inguruan egin zuen ikerketaren](#) ondoren lortu zen (lantegi horietan Londresko Jokoen maskoten salgaiak ekoizten dira). Legeak ezartzen dituen mugak baino **askoz soldata txikiagoak** ordaintzen ari zirela eta lanaldi luzeegiak zituztela egiaztatu zen (**24 ordura arteko txandak** izatera ere iristen ziren). Lantegietako batean **15 urteko umeak zeuden**. Aipatzekoa da, era berean, lantegietako pertsona asko kontraturik gabe zeudela, ez zutela sindikatuetan izena emateko eskubiderik edo toki arriskutsuetan egiten zutela lan.

Hala ere, lan-eskubideen urraketan inguruko albisteak agertzen jarraitzen dute: Adidas, Nike eta Puma markek Bangladeshen dituzten fabrikeri egindako azken txosten bezala, “Race to the bottom”. Ikerketa honek langileak jotzen dituztela, iraintzen direla, gaizki ordaintzen direla eta lanaz gaitortzen direla erakusten du. Hala ere, lan-eskubideen urraketan inguruko albisteek agertzen jarraitzen dute, eta, bitartean, Joko Olinpikoak antolatu dituen Batzordea **1.200 milioi eurotik gorako** irabaziak lortzen ari da **maskoten irudia duten** giltzatakoen, peluxeen, pegatzen nahiz motxilen salmenten bidez. Kirolariek eta atleten gogor entrenatu behar dute munduko errekorrak hausteko, eta, era berean, industria horretan lan egiten duten pertsonak beren soldatak eta lan-baldintzak murriztuz lehiatzera behartuta daude. Baina azken horiek ez dute inolako dominarik lortuko.

Hori guztia dela eta, Garbi Jokatu euskal herritarrek **sentsibilizatzeko eta informatzeko** ekintza ugari ari da antolatzen, kirol-jantzigintzaren industriarekin lotutako arazo horien berri izan dezaten. Euskadiko ikastetxeak, institutuak, aisialdi-taldeak, kultura-elkarteak, emakumeenak eta kirol klubak ekimenean parte hartzen ari dira hitzaldien, kirol-jardunaldien, aisialdikoan, erakusketen nahiz jokoen bidez. [Halaber, Garbi Jokatu Aliantza Espainiako Batzorde Olinpikoarekin ari da hitz egiten, zerbait egin dezan.](#)

Kontsumitzaile gisa atsegin ez duguna aldatzeko gaitasuna eta **boterea dugu**. Garbi Jokatu 2012ko elkarrekin kalean **atxikipenak** jasoko dituzte, baita webgune honen bitartez ere: www.ropalimpia.org/es/juegalimpio.

Informazio gehiago?

Silvia Núñez Castro (SETEM Hego Haizearen Komunikazioa)

Telefonoak: **945 120746 / 659682431**

Emaila: comunicacion.euskadi@setem.org

www.setem.org/euskadi

www.ropalimpia.org/es/juegalimpio

Deskargatu [hemen](#) Txinako bi lantegien gaineko ikerketa
Deskargatu [hemen](#) Adidas, Nike eta Puma markek Bangladeshen dituzten lantegien gaineko
[i](#)kerketa

(1) Euskadiko Arropa Garbia Kanpainaren sareko kideak:

[SETEM Hego Haizea \(sarearen koordinatzaia\)](#), [KIDENDA](#), [MEDICUS MUNDI ARABA](#), [FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD](#), [CCOO](#), [UGT](#), [ELA](#), [EKA](#) (Euskalherriko Kontsumitzaileen Elkarte), [ASCOFA](#) (Euskadiko Kontsumo Orientabiderako Famili Elkarte) eta [URKOA](#) (kontsumitzaileen euskal elkarte).